

Azken hitzak

Ibon Sarasola
(UPV/EHU)

Ibon Sarasola, Gorazarre

Donostia, Carlos Santamaria, UPV/EHU
2015eko martxoaren 13an

Mila esker... mila esker.

Ni halako hauetara behin joan izan naiz aspaldi samar... hain zuzen ere, Koldo Mitxelenari antzeko zerbait egin ziotenean. Eta gogoratzen naiz, bukatu zenean, eta berak hitza hartu behar izan zuenean, bi gauzatxo esan zituen, eta kitto. Eta, akordatzen naiz niri iruditu zitzaidala... ez errespetu falta bat organizatzaileentzat edo besteentzat, baizik ez dakit... Eta oraindik gogoratzen naiz horrekin.

Honen berri izan nuenean, segituan kezka bera sortu zitzaidan, “zerbait ganorazkoa-edo egiten saiatu beharko duzu, ezta?” pentsatu nuen. Eta, buf, azkenean, Koldoren zerara iritsi nintzen, ze zer esango duzu, eskerrak eman, eskerrak eman... Nahiz eta —nagoen bezala— oso hunkitua baldin bazaude ere, bueno, minutu bat baino gehiago ezin duzu pasa eskerrak ematen. Eta gero, zer egiten duzu?

Eta orduan, nola leziatzen ezin naitekeen hasi, ze ez du pegatzen, ba kontatu nahiko nituzke nire traiektorian nahiko inportanteak izan diren lauzpabost gauza.

Lehendabizikoa, etxean. Hamalau-hamabost urte dituzunean, eta anaiarekin-eta etxean ba erdaraz-edo hizketan hasten zarenean, beti entzuten genuela aitaren ahotsa “ondo hitz egin!” esaten zuena. Eta hori gogoratzen dudan gauza bat da: ondo hitz egin behar zela.

Euskaltzaletu, Elbiria Zipitriarekin euskaltzaletu nintzen. Jesuitetan PREUn geundela, bazen han kide bat, eskola-lagun bat, Arrazola, Donostiako Arrazola abertzale betikoetakoak, eta hark txikitan Elbira Zipitriarekin ikastola klandestinoetan ikasia zuen, eta esan zidan ikasle ohiak berarekin biltzen zirela larunbatero, eta irakurtzen zutela zerbait, ez dakit zer, eta etortzeko esan zidan. Eta *Garoa* irakurtzen genuen. Hark bai leziatzen zuela, Elbiria Zipitriak... Baina nik, euskaltzaletasuna han sentitu nuen benetan, eta hor banuela nik euskara zela-eta zerbait.

Alfabetatu, aitari esker alfabetatu nintzen. Nik ingeniero karrera egin nuen, baina plan zaharrek hasi nintzen, eta plan berriarekin bukatu. Plan zaharra zazpi urte ziren, eta plan berria bost. Nire karrerak sei urte izan zituen, ze *selectivo* eta *iniciación* eta, bost egin beharrean, egin genuen *curso puente* izeneko gauza bat, eta gero ja bigarrena eta hirugarrena. Eta klaro, *curso puente* delako hori zen gero Filosofia eta Letretan ezagutu nuen kurtso horietako bat, kolperik jotzen ez zena, nolabait esan. Ingenieroetako mailan ohituta, hamabost ordu klase-eta... Eta orduan aitak esan zidan “horrenbeste denbora libre izanez gero zergatik ez duzu euskaraz idazten, eta ikasten?”. Aita, nire aita, gerraurrean alfabetatu zen, Arrigarai/Ataun delako biren

Gramática Vasca delako batekin, eta orduan pasa zidan. Horrekin hasi nintzen ni, eta harekin ikasi nuen nolabait euskaraz idazten, edo hola hasi nintzen.

Hurrengo pauso inportantea niretzat zer da? *Gazte naiz*, Lur editoriala. Hor ja euskaldun militante, edo euskarazko aktibismo kulturalera sartu nintzen, Ramon Saizarbitoriaren bidez sartu nintzen, eta hortik oraindik ez naiz eskapatu. Hura izan zen. Lehendabizi, *Zeruko Argia* zen hartako *Gazte naiz* orrialdean, eta gero Lur editorialean batez ere. Nire bizi guztiko, etapa onena ezin da inoiz esan, baina onenetakoa bai izan zen. Lan asko egin genuen, nik uste dut liburu asko kaleratu genituela, eta oso sistema erraz batean. Diktadura pean, problema nagusia zera zen, *número editorial* edo lege gordailua ez zegoela lortzeko modurik. Eta azkenean lortu genuen mueble denda bat zeukan eta *Método de lectura rápida* bat publikatzen zuen Enrique Villar baten bitartez, eta gero oso erraza zen. Rikardo Arregirekin-eta bostehun suskriptore lortu genituen. Suskriptoreei kobratzen diezu liburua kontrarrenboltsoz jasotzen dutenean, eta inprentara letrak laurogeita hamar egunetara pagatu behar dituzu. Beraz, semaiko bat jarri gabe, hartu dirua suskriptoreei eta pagatu... eta autofinantziatze sistema ezagutu dudan onenetakoa gertatu zen hura. Nik uste dut dexente liburu publikatu genituela, batez ere Arantxa hemen dagoenak, Ramonek eta nik egiten genuen lan, *Villa Zutik* —sic— izena zuen etxe batean, Uliako toki batean, eta horixe... egunean ordu asko... klaro, gazteak ginen, eta gaztea izateak bi bentaja ditu: ez-jakina zara, eta bost axola zaizu dena; eta batez ere, gaztea zara eta gaueko hirurak arte edo goizeko laurak arte egon zaitezke probak zuzentzen... zenbat aldiz Arantxarekin probak zuzentzen... hilero liburu bat atera behar zen, eta hiruron artean hilero liburu bat atera beharra... probak zuzentzen, goizeko ordu bietan, hiruretan, ze hurrengo egunean eraman behar zen inprentara.

Gero, klaro, borajine honetan sartzen zarenean... lehendabizi idazten... literatura ukitzen duzu, eta berehala konturatzen zara ez duzula gaitasun espezialik literaturara dedikatzeko. Orduan zer egiten duzu? Ba dedikatzen zara inbestigaziora, edo bueno, euskal zerara... Klaro, niri ez zait inoiz amateur bat izatea gustatu, niri zaletuak eta amateurak beti... Orduan, dedikatu behar banintzen nolabait esan aktibismo kultural batera, gainera euskara batuaren hura dena tartean zegoenean, ba profesional egin behar nintzen.

Bartzelonara joan nintzen. Oso irakasle onak izan nituen, suertea izan nuen... oso irakasle onak izan nituen. Klaro, ni ere errazera jotzekoa naiz, eta orduan esan nuen “bueno, ingenieroa haiz,

balia ezak hori”, eta segituan, linguistika matematiko delakoaren bidetik abiatu nintzen, eta Serranorekin-eta nahiko ondo... nik uste... Chomsky-eta baino lehenago gauza abstraktuagoak, automata finituak, Turing-en makinak, eta mundu horretan saiatu nintzen... gero noski Chomsky... nik Chomsky aguantatu nuen 1965eko modelua arte, gero ja... Baina ordura arte bai, ondo moldatzen nintzen, hori ondo joan zitzaidan. Eta gero, noski, filologia.

Lehen ahaztu zait esatea nik Mitxelena nolabait nola ezagutu nuen. Lur-eko liburu horietako batean nik euskal literaturaren historia bat publikatu nuen. Horrek ere bere historia du, ze hura egin nuenean, autoreak eta obrak... atera zitzaidan mamotreto bat, eta Arantxarekin —akordatu da— hasi ginen hura nik diktatzen eta berak makinan mekanografiatzen, eta pentsatzen zenuen “hau ez dago aguantatzerik, hau ez dago irakurtzerik”, eta esan nuen “a, bueno, ba fuera!”. Egundoko depresioa izan nuen, baina depresio horretan derrepente pentsatu nuen “bueno, beste zerbait egin beharko da”, eta frase bat bururatu zitzaidan, hemen idatzita dudana: “Erdi Aroko euskal aho-poesia Ahaide Nagusiekin batean galdu zen”. Eta zera bezala, “Muchos años después, frente al pelotón de fusilamiento, el coronel...”, edo “En un lugar de la Mancha...”, badaude frase batzuk, hori jarri eta zriuuuuu, dena ateratzen zaizuna, eta *Euskal Literaturaren Historia* horrela joan zen. Aurreko guztia ahaztu, —ahaztu ez, han zegoen, buruan nuen—, eta entsaio edo kronika korritua bihurtu zen... Eta orduan, autoreak eta obrak laugarren parte batean sartu nituen anexo bezala edo. Eta hain zuzen hori gustatu zitzaion Mitxelenari. Deitu zidan behin esanez: “Aizu, ikusi dut zure *Euskal Literaturaren Historia*; eta...” ez hitz hauekin, baina esan zidan “zuk badakizu kaos bat organizatzen”. Eta hola. Eraman ninduen etxera, eta erakutsi zizkidan bere zapata kaxak, eta fitxak, eta ez dakit zer, eta galdetu nion, “beraz, hau da asuntua?”, eta erantzun zidan, “bai, hau da kontua”. Harrezkero “asuntua” hitza ez dut gehiago nire bizi guztian erabili izan. Ba hura zen kontua... eta hura zen kontua. Gero joan nintzen Bartzelonara, filologia estudiatu nuen...

Filologia da... klaro, nik injenierotan zerbait ikasi banuen, hori izan zen espiritu zientifikoa. Eta gero konturatu nintzen filologia dela —fisika, kimika eta matematikak kenduta— sail zientifikoena. Test bezala, gauza bat zientzia den ala ez, predikzio kapazitatea edo ahalmena erabili da beti. Esango didazue niri teoria literarioak-eta zer predikzio ahalmen duten. Filologiak badu. Eta, inoiz baino gehiago aipatu dudana, Saussure izan da niretzat konparatista ikaragarria, gero alumno alproja batzuek atera zioten ez dakit zer apuntetan, eta bera orain gelditu da

estrukturalismoaren aita bezala... Baina e! Saussure da filologo edo konparatista egundokoa, eta gero, pekatu bat izan zuen. Aber, estrukturalismoa kea da, gaur egun erruz ikusten dira ke saltzaileak. Ba hori dena estrukturalismoan hasi zen, eta niretzat Saussure konparatista bat da, eta zientziak egin beharko lioke halako ezagumen bat, ezagutza bat, orain ez duena.

Bueno, gero, Orotarikoarena... Uf... Hori hobe alde batera lagatzea, ze... gauza gehienak ahaztuko genituzke... Gauza bakarra aipatu nahi dut, baten batek lehenago aipatu duena, gainera. Letretako jendea ez da konturatzen, horrelako gauza batean —Blancak oso ondo esplikatu du— ahalbideak dituzu eta arazoak dituzu, eta konponbide bat hartu behar duzu. Hor ez dago erremediorik. Baina gauza batzuetan eduki behar duzu kontu bat argi. Kontu hau montatzen hasi zenean, Euskaltzaindiarekin izan genituen halako tirabira batzuk, eta derrepente Hiztegiaren tokian ikusi nuen fotokopidora bat. Nik eskatu ez nuena. Esan nuen, fuera! Ze klaro, guk hilabete batzuetan 100.000 fotokopia egiten genituen... hilabete batean, eta hurrengoan, eta hurrengoan. 100.000 fotokopia, eta fotokopidora hark lau-bost segundo tardatzen zituen fotokopia bakoitzean, triuuuuuuuit, [etena] triuuuuuuuit... Gero ekarri genuen fotokopidorak, nik nire bizi guztian ikusi dudan fotokopidorarik onenak, egiten zuen zdaaa, zdaaa, zdaaa... segundo bakar batean. Kalkulatu genuen hilero 100 orduko prezioa zuela. Orotariko bezalako proiektu batean sartzen zarenean, horrelakoak ere kontuan hartu behar dituzu.

Beste bat: eskaini ziguten hor, Miramar-en, palazioan, lokal bat. Ooo! Ikusten zenuen, eta 'U' forma zuen. Momentu hartan lan egiten genuen moduan, jendea hemen esertzen zen... liburu bat hartu behar zuen, zeren oraindik ez zeuden horrelako pantailan ez begiratzea ez ezer... liburua hartu fisikoki eta begiratu zer jartzen duen... hori egin behar zenuen. Esan nuen, aber ba, hauek hemen daude, 'U' formako zera baldin bada, liburuak han baldin badaude, kalkulatu nuen bakoitzak bospasei kilometro egiten zituela egunean. Hori ezin liteke. Oso ondo dago ejerzizioa egitea, baina ez Hiztegiaren kontura. Orduan, behar genuen ni hemen eta liburua hor, tarte txikietan. Horrelako gauzak ez zaizkio *letraseko* bati pasatzen burutik, eta klaro, Orotariko bezalako kontu bat, presaka eta muturka ibili eta gero, hogeita bat urte-edo eman genituen gauza batean, horiek oso inportanteak dira.

Euskara batuaren ajeak. Ez nago batere gustura liburu horrekin. Esan nahi dut... oso ondo etorri zitzaidan gero ikusteko hori zela mundurik onenean funtziona zezakeen gauza bat, baina ez egungoan... Hiztegi Batua ere bide horretatik joan zen, eta ikusi nuen... edozeinek ikusi dezake

hori hola dela gauza aztertzen baldin badu, batez ere corpusen bidez. Argi zegoen Euskal Hiztegiaren lehen bertsioa nondik nora zihoan, eta hori zen nire teoria, nik denbora guztian bultzatu nuena: Iparraldean eta Hegoaldean bi hitz diferente baldin bazeuden gauza bat esateko, adibidez *alfonbra* / *tapiz*, ba hor problema bat dugu... Problema bat dugu. Orduan, kontua zein zen? Batez ere, elkarrekin genituen hitzak-edo batasunerako aukeratzea, eta bestela, internazionalena-edo. Gero, batez ere corpusak manejatuz, konturatu naiz hori ezinezkoa dela. Euskalgintzak, eman dezagun, ez duela indarririk, gure artean ez duela indarririk horrelakorik egiteko. Esaten da, “erderakadak daude liburuetan”... bai, erderakadak daude liburuetan, baina hartzen baduzue adibidez Ereduzko Prosa Gaur edo orain —ni hor konturatu naiz— Egungo Euskararen Hiztegia, ikusten dituzuenean bata bestearen atzean, “baina, zer da hau?”. Eta orduan, nik uste —ez naiz gehiago luzatuko— bide argia dagoela: euskara —katalanek ere antzeko zerbait egin dute—, euskara gaztelaniaren menpean garatu behar dugu. Hori batasunaren kontra doa? Ba ez hain kontra. Zorionez, edo zorigaitzez, nahi duzuen bezala, erdera Iparraldean nahikoa sartzen ari da, eta alde horretatik... aber, jarri zaitzete: Euskaltzaindiak esaten du *alfonbra* ez dela erabili behar, *tapiz* erabili behar dela. Zuek ikusten dituzue Hegoaldeko idazle gehienak “tapiza ez dakit zer” erabiltzen? Uf! Ez da ea hori ikusten duzuen, baizik eta gero hartzen dituzu corpusak eta konturatzen zara inork ez dizula kasurik egin. Inork ez badizu kasurik egiten, edo hiruzpalauk egiten badute kasu, eta gainerako guztiak beste bide batetik baldin badoaz, zer egin behar duzu? Negar, negar asko, eta egoera deitoratu? Hemen egin daitekeena, panorama honetan bizirik ateratzeko modu bakarra da amore ematea honetan, eta aber hau salbatzen dugun, eta nik uste dut hori dela bidea.

Adibidez: *emendakina*. Disparaterik baldin badago Hegoaldean, eta Euskaltzaindiak gainera gaitzetsi duena, *emendakina* da. Orain... bada saio bat *Iparraldearen Orena* Euskal Telebistan, eta *emendakina* gora eta *emendakina* behera. Beraz, Iparraldean ere sartu den hitz bat, nahiz eta munduko okerrera izan, ba... hortik segitu beharko dugu, uste dut nik. Esan nahi dut, bi hitzetan esateko, kriterioa ez da —eta inongo hizkuntzatan ez da— hitz ondo eratuak zabaltzea, baizik eta erabilerak agintzen du. Eta men egin behar diogu erabilerari. Horregatik dira corpusak hain beharrezkoak. Eta nahiz zuk esan dezakezun nahi duzuna, eta ez dakit zer eta badakit zer, eta hau eta bestea... esan dezakezu mila aldiz *domeinu* dela disparate bat, ze *domeinu* baldin bada, *alumeinu* behar du euskaraz. Hor nahastu dira “inio” eta “enio”... *jeinu*... bai, baina *jeinu* da

genio, ez *ginio*. Eta dena dela, Euskaltzaindiak ere *jeinu* ez du onartzen —bueno, bigarren mailan onartzen du—, nahiago du *jenio*. Esplikatu egiozu hori jendeari. Nik esplikatu diot. Ezta kasurik ere. Nik orain, dudarik gabe, *domeinu*-ren —disparate horren— alde egiten dut. Noski, dudarik gabe. Ze kontua batasuna da. Ondo edo gaizki, edo ez dakit zer lortua, baina batasuna da. Eta alde horretatik, ba bueno, ba... gora *emendakin!*, gora *domeinu!* gora...! klaro, gora! Zein da bestea...? Gora *likidezia!* *likidezia*, e? *Likidotasuna* esaten du Europa guztiak. Katalanek ere bai. Zein da problema? Espainolak *liquididad*-edo ezin duela esan, eta orduan nola esaten da? *Liquidez*. *Honradez*-ek *ondradutasun* ematen du euskaraz, baina nahastu egin da, “-ez” eta “-eza” nahastu dira, eta orduan *pobreza-pobrezia*, ba *liquidez* —ez *liquidez*a— *likidezia*. Baina ez du erremediorik! Ni *likidezia*-ren alde nago, ni batez ere aurrera aterako diren gauzen alde nagoelako. Eta hori da nire aldaketa nagusia.

Gainera, kontuan izanda erderaz ere, hitz gehienak... *aviación*. *Aviación* da munstro bat, hitz ondo eratuen bidetik. Ze *aviación* etorriko da *aviar*-etik, *concentración* *concentrar*-etik datorren bezala. Eta *aviar* aditzak zer ikusi dauka *aviación*-ekin? Ez du bururik ez hankarik. Eta horrela, piloak eta piloak eta piloak. *Electrón*... Piloak eta piloak hizkuntza guztietan. Problema da gu korrektotasunen kontuetan-eta hor galdu garela uste dut.

Berriro diot, betoz corpusak. Nahiko problema izango dugu bestela ere, eta batasuna saia gaitezen egiten gehien erabiltzen diren hitzen bidetik.

Eta nik uste dut nahikoa hitz egin dudala. Esan dut ez nuela leziatuko, baina leziatzen ari naiz... Gauza bat bukatzeko, honekin lotua dena eta kontuan hartu behar duguna. Hau guztia negargarria da, edo penagarria da? Nik uste dut osasungarria dela. Alde batetik, garai batean hasi ginenean, oso gutxi ginen eta oso pilota txikia ginen, eta edozeinek kolpe bat emanda haren norabidea alda zezakeen. Esan nahi dut, *krokodilo* baten batek proposatu zuen orain dela mila urte, eta hurrengo egunean denak *krokodilo* idazten hasi ginen. Imajina dezakezue orain baten batek *krokodilo* proposatzen duela, zeinek egingo liokeen kasu? Ba inork ez. Eta hori pozgarria da. Orain hain bola handia-edo dugu, gure hizkuntzak eta euskalgintzak halako tamaina hartu du, edozeinen okurrentziak ez du mugitzen. Bere martxa hartu du, ona edo txarra, baina bere martxa, eta hor eragiteko askoz zailagoa da. Adibidez, lehendabiziko aldiz bere estilo liburuan *Berria*-k ja ez du Euskaltzaindia segitzen *ontzi*-ren kontuan. Hiztegi Batuan *ontzi*-ren kontua kaosa da, baina kaosaren definizioa: batzuk bai, besteak ez... Eta esan zuen *Berria*-k, eta bere azken estilo

liburuan jartzen du: guk *ontzi* beti juntu idatziko dugu. Eta asmatu egin du, eta gainera hortik doa jendea.

Eta hori, ez dut besterik esateko. Uste dut nahikoa hitz egin dudala, gainera. Beraz, bale. Eskerrik asko.